

Txorierriko mankomunitateak RAP musikaren eta barreen bidez hezten ditu gazteak elkarbizitza arloan.

Derioko, Larrabetzuko, Lezamako, Loiuko, Sondikako eta Zamudioko udalek “¿Cómo afrontar los conflictos?/ Nola egin aurre gatazkei?” ekimena abiarazi dute 2011. urtean, Txorierriko Mankomunitatearen bidez. Ekimen honen xedea da heldutasun etapan dauden gazteak (12-16 urte) bitartekotzaren paradigmen eta gaitasunen arloan sentibilizaraztea. Horretarako, hurbil duten hizkuntza erabili nahi dute, besteak beste: umorea, RAP musika edo graffitiak.

Ekimena 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat da; izan ere, beraiek dira etorkizuneko helduak eta beraiek osatuko dute etorkizuneko gizartea. Honelako ekimenen bidez lortuko dugu ingurune garatuagoan bizi ahal izatea, hain zuen ere, gatazkak ebazteko indarkeria alde batera utzi eta gainerakoak gure berdintzat hartzen ditugun ingurune garatuagoan.

Ekimenaren ekintzak:

Proiektuak segidan planifikatutako hiru ekintza ditu, eta honako hauek dira ekintzon helburuak: gazteei ideien berri ematea, eurekin hausnartzea ideia horien inguruan eta horiek hiri-artearen bidez adieraztea.

Kultur ekintza

Ekimen horren abiapuntua kultur ekintza bat izango da. Reality show baten formatua izango du. “La Pez” antzerki taldearen emanaldia hartzen du bere baitan ekintza horrek, eta Iñigo Iraultza izango da aktore nagusia. Horrez gain, Espainiako “oilar borroken” lehiaketako finalista izan den “Invert” raperoaren emanaldia ere izango dugu. Gainera, Betagarri Gasteizko ska taldeari egindako elkarrizketa proiektutako da. 10 disko ditu kalean dagoeneko Betagarri taldeak eta 700 kontzertu baino gehiago eman ditu Espainian, European, Estatu Batuetan eta Japonen.

Ekintza horren baitan, musika eta kirol munduko zenbait ospetsuk lankidetzaren, talde lanaren eta komunikazioaren garrantziaz hitz egingo diete gazteei. Besteak beste, Zenttric musika taldeak, Fernando Llorentek eta Betagarrik, euren irudia eta ideiak laga dizkiote proiektuari.

Lana ikasgeletan

Kultur ekintzaren ostean, garrantzitsua da gazteekin hausnartzea landutako alderdien inguruan. Beraz, proposatzen da ordubeteko saioa egitea, ekintzan aurkeztutako kontzeptuak finkatzeko. Lan hori Txorierriko DBHko ikastetxeetako geletan egingo da.

Hiri arteari buruzko tailerrak

1. eta 2. ekintzak barneratu eta horien inguruan hausnartu ondoren, gazteek proiektu horretan bideratu diren eta euren ustez esanguratsuenak izan diren ideiak islatu ahal izango dituzte sormen artistikoaren bidez.

Gazteek honako hiru tailer hauetako bat aukeratu ahal izango dute: antzerki tailerra, RAP tailerra eta graffiti tailerra. Kultur ekintzan parte hartu duten artistek zuzenduko dituzte tailerrok, eta eremuko gazteguneen bidez bideratuko dira.

Derioko Gaztegunean graffiti tailerra egingo da,

Zamudioko Gaztegunean RAP tailerra, eta

Sondikako Gaztegunean antzerki-tailerra.

Proiektuaren oinarri pedagogikoa

Proiektuaren helburua da gazteak heztea eta ideia hauek helaraztea:

- Ulertzea gatazka konpontzeko ez dela beharrezkoa indarkeria.
- Ulertzea gatazkan ez dagoela errudunik, pertsonen arteko behar eta interes ezberdinak baizik.
- Gatazka batean beste pertsonaren lekuan jartzeko gai izatea.
- Gatazka batean norberaren emozioak eta bestearenak kudeatzeko gai izatea.
- Ulertzea adierazpen-komunikazioak bideratu egiten duela pertsonen artean akordioak lortzea.
- Ulertzea ezinbestekoa dela autoestimu-maila egokia izatea elkarbizitzari baikortasunez aurre egiteko.

Proiektua zifretan

Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudio udalerrietako 500 neska-mutilek hartuko dute parte proiektu honetan.

Horrela, Txorierriko Mankomunitateak bat egingo du Garrébilek garatzen duen kultura eta hezkuntza ekimenean. Ia 1.000 gaztek hartzen dute parte urtero ekimen horretan.

Txorierriko Mankomunitateak finantzatu du ekimena eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren babesa jaso du.